

SEGURTASUN EREDU BERRIA



EGOERA

Arlo honetan bi bektore kontraesankor ditugu. Alde batetik, esperientzia historikoan oinarrituta, herritarrek poliziarri dioten konfiantza eza. Bestetik, hainbat hedabidek eragindako segurtasun-faltaren sentsazio interesatua. Gainditu behar dugun lehen oztopoa hainbat polizia-kidegoren sedimentazio historikoak eragindako segurtasunaren mapa kaotikoa da. Izan ere, zerbitzu eraginkorra emateko logikak baino, alderdien interesek sortu dute. Bestalde, segurtasuna polizian hasi eta amaitzen dela interpretatzen duen irudipena aldatu behar dugu. Poliziaren zereginaren ohiko parametro horiek beste batzuekin aldatu behar ditugu, hain zuzen, segurtasun-zerbitzu garantista batekin. Hau da, ezin du erreakzio edo errepresio hutseko zerbitzu izan. Aitzitik, delituak eraginkor prebenitzeko ikuspuntu batean oinarrituta egon behar du, eta eskubideak eta

askatasunak baliatzea sustatu. Ezin dugu zerbitzu horiek egun emateko moduaren kritika egitearekin konformatu. Beharrezkoa da eredu praktiko bat aurreratzea: alde batetik, segurtasunaren kontzeptu zabalagoa emateko –prebentzioaren, hezkuntzaren eta pedagogiaren, babes zibilaren, larrialdien, erreskateen, suteen eta salbamenduaren arloetan lan egiten duten eragile guztiak batuta–; bestetik, poliziaren funtzioa eguneratzeko, eman behar duten kidegoak araztuta, koordinatuta eta berrantolatuta, horien kudeaketa-programak diseinatuta, udaltzaingoaren zereginak zabaldua eta Ertzaintzarenak araztuta eta berresleitura.

NEURRIAK

1

HERRITARREN ARTEAN SEGURTASUNARI BURUZKO EZTABAIDA SUSTATZEA.

Beharrezkoa da egungo ikusmoldea, herritarrek segurtasunaren helburu hartzen dituen, hausnarketa-prozesu bat abiaraztea. Herritarren helburuak, ikuspuntu komunitario eta aktibo batetik, segurtasunaren alorrean parte hartzen duen eta segurtasun-zerbitzua eskatzen duen subjektu aktiboa izatea litzateke. Segurtasuna herritarrentzat eta herritarrekin, haiek eta beraien interesek eta lehentasunek zehaztu dezaten poliziaren ekintza.

2

-ESTATUKO SEGURTASUN INDAR ETA KIDEGOAK GUTXIKA ERRETIRATZEA

Herrialde honi poliziaren mapa kaotikoa ezarri diote. Eskubide eta askatasunetan eragiteaz gain –Bakea finkatzeari buruzko kapituluan aztertu dugu–, gurutzatutako funtzioak, gainjarritako eskumenak, erregulaziotik ateratako atribuzioak eta inertziak, ezinbestekak edo inposizioak emandako gaitasunak dituzten polizia-kidegoen abaniko desordenatua ekarri digu. Egoera

onartezina da, bai kuantitatiboki (Europako gomendioak hirukoizten dituzten ratioak) bai kualitatiboki (antolakuntza-kaosa, eraginkortasun eza eta gastu ordainezina). Funtsezkoa da Segurtasun Batzordeak esku-hartzea errepideetako kontrolak, eraikin publikoetan zaintza-funtzioak edota herritarrei segurtasun-zerbitzu eraginkorra emateko paperik betetzen ez duten Estatuko Segurtasun Kidegoen presentzia publikoa gutxitzeko.

3

SEGURTASUN-FUNTZIOAK MOLDATZEA.

Lehenago esan dugun moduan, segurtasun handiagoak polizia gehiago behar duela dioten ikusmoldea inposatu da. Eskema kooperatibo eta koordinatu baten bidez segurtasunarekin lotutako beste funtzio batzuk betetzen dituzten kidego edo agentzia batzuekin ordeztu behar da poliziaren nagusitasuna. Segurtasunaren-arloan zeresana eta zeregina izan behar dute herritarrei arreta ematen dioten zerbitzuek bazterkeria prebentzioan, gizarte-laguntzaren arloan, emakumeen aurkako indarkeriaren tratamenduan delitu ekonomikoen kontrolean eta jazarpenean, iruzur fiskalen ikerketan, ingurumenaren babesean, hezkuntzan eta bizikidetzaren eta komunitate-erantzukidetasunaren promozioan.

4

SEGURTASUN PUBLIKOAREN EREDUA ARGITZEKO PLAN ESTRATEGIKOA.

Gure kriminalitate-tasak berriro ebaluatu behar dira, baita larrialdien beharrak, segurtasuneko lehenetsunak edota haietara bideratzen diren bitarteko tekniko eta ekonomikoak ere. Hortik aurrera, ezinbestekoa da segurtasunaren alorreko eskumenak eta eginkizunak berriro ezartzeko plan estrategiko bat prestatzea, segurtasun-zerbitzua, beti ika-miken iturri izan ordez, gizartearen bizkarrezur bilaka dadin. Zehazki, planaren diseinuak jaso behar du poliziakideen ratioa murrizteko plan bat (ertzainak eta udaltzainak kontuan izanda), segurtasun-beharrizanak kontuan izanda eta aurrekontuetako egoera errealekin koordinatuta. Era berean, Jaurlaritzak proposamen bat egin behar du egungo ratioak aldatzeko; izan ere, bi ertzain daude udaltzain bakoitzeko. Planteamendua baldin bada gertuko polizia-kidego bat izatea, udaltzainek osatua egon behar du, erkidegoko poliziaren oinarri izan behar du, eta behar besteko dotazioarekin izango da gertuko. Ertzaintzak, eskema honen barruan, esku-hartze integrala izango da, murriztuagoa, baina espezifikagoa eta efizienteagoa era berean. Alde horretatik, Ertzaintza benetako polizia judicial bezala konfiguratu da, eta ikerketa judicialen kasuan epaileen eta fiskalen mende egongo dira, bai organikoki, bai funtzionalki.

5

LARRIALDI-PREMIEI ERANTZUNA.

Plan estrategiko honek koherentea behar du izan eta babes zibileko zerbitzuak modu egokian eman behar ditu, baita larrialdien edota sute eta erreskateak prebenitzeko zerbitzuak ere, gaur egun deskoordinatuta eta itxaropenik gabe ageri baitira. Ezinbestekoa da gaur egungo piramideari buelta ematea; izan ere, egun, kuantitatiboki ondoen antolatutako oinarria erreakzio-polizia da, eta prebentzio-zerbitzuak minoritarioak eta prekaritate handikoak dira.

6

BALIO BERRIAK.

Goitik beherako eredu-aldaketa honek, era berean, balio-aldaketa bat ere ekarri nahi du polizia-funtziora: tankera militarizatuko ohiturak albo batera utzi behar dira, eta erantzukizunak modu partekatuan bere egiten dituen mentalitate bat behar da, gizarte-konpromisoz eta zerbitzua emateko borondatez. Era berean, polizia profesionaltasun-irizpideekin administratu behar da, oinarri gisa ibilbide profesionala aintzat hartuta eta gertutasun ideologikoa; bezerokeriak, beraz, albo batera utzi behar dira. Plantillaren mugikortasun handia eta zerbitzu-batzordeetan lanpostu okupazio handia izateak ederki ematen du jarduteko modu horren berri.

7

EUSKALDUNTZEA.

Lehenetsuna izango du, eta segurtasuneko langileak euskalduntzeko plan bat erabakiko da: erronkak, epeak, modu errealean eta bideragarrian lortzeko moduko helburuak, baina aitzakiarik gabe.



LEGEGINTZAKO ERREFORMA.

Euskal Poliziaren Legea berrituko da, baita suteak prebenitzeko, itzaltzeko eta salbamenduetarako legea (azken hori erakunde titularrekin eta langileekin batera), halaber, larrialdiak kudeatzeko lege onartu berriaren aplikazio praktikoa aztertuko da, guztia ere zerbitzu horiei guztiei nolabaiteko koherentzia emango dien lege-testuen multzo bat taxutzeko, aurretik esan dugun bezala, zerbitzuok behar bezala kudeatzeko.



HERRITARRAK KONTROLATZEKO MEKANISMOAK.

Azkenik, ezinbestekoa eta oso garrantzitsua da polizia-abusuen eta -gehiegikerien mekanismo zorrotzenetan sakontzea; horretarako, kanpoko kontrol-batzordeak sortuko dira, gizartearen partaidetzarekin eta gardentasun-irizpide garbiekin, gertatutakoen kontu emanez. Polizia-kidegoen gardentasun-mekanismoetan sakontzea, polizia-egintzen ardurak modu zuzenean hartuta, jarduteko irizpide garbiak eta egiaztagarriak azalduta praktikan ere, eta praxi txarreko kasuen aurrean bide juridikoz edo diziplinaz berehala erantzunda, baita funtzionario publikoen aldetik arau-haustea, giza eskubideen urraketak edota oinarrizko askatasunen kontrako egintzak gertatzen direnean ere. Gizarte baten izenean autoritatea duen edonor jardute horren erantzule da gizartearen aurrean.